

BIZIKIDETZAREN ALDEKO MOZIOA

San Juan bezperan herriko plazan jarritako pankartaren eta horren inguruan sare sozial zein herriko hedabideetan argitaratutako mezuen harira, Arrasateko EAJ-PNV eta PSEE udal taldeek ondorengo mozioa aurkezten dute:

- Udal honek bizikidetzaren aldeko apustu irmoa egiten du eta horri lotuta, guztionak diren espazio publikoak zaindu eta horiek errespetatuak izan daitezten lan egingo du.
- Herriko plaza arrasatear guztion topagunea da, elkarbizitzarako gunea, alegia, are gehiago jai egunetan, plaza hori baita, hain zuzen, festen ekintzen eszenatoki nagusia. Festak, espazio publikoak bezalaxe, guztionak eta guztiontzat dira eta politizatu gabeko jaien alde lan egingo du Udalak.
- Herrian badaude pankarta gunek adierazpen librerako. Gune hauek errespetatzearen alde egiten dugu, horrela egiten duten bezala egunero arazo sozial ezberdinei bide emateko berauek erabiltzen dituzten eragile, talde zein norbanakoek.
- Pankartarekin gertatutakoaren ostean, Udal honek irmoki salatzen du edozein aitzakiaz baliatuta modu bortitz batean pertsona baten aurkako kanpaina, eraso zuzenak eta gezurrak.
- Errespetua eta egia dira bizikidetzaren aldeko ukaezinezko printzipioak. Elkarbizitzan zinez sinesten badugu, erasoak, irainak eta tankera honetako kanpainak albo batera utzi eta elkarlan-bideak jorratzera deitzen ditugu Arrasateko herritarrak.